

ANAITASUNA

278. zenb.

1974.eko ekainaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Europa eta Eskualdeak



1972.eko urriaren 19tik 21era, europar estatu eta gobernu buruek ospatu zuten batzarreko azken azalpenak, bere bostgarren puntuan, Europar Elkarte eta Eskualdeen* arteko arazoari heltzen* zion.

Europar Elkarteko buruzagiek nahitaezko zeritzaten,* eskualdeen arteko desberdintasuna eta desoreka* egiturala* aztertzeari eta beronen konponbiderako oin-harri bat eratzen hasteari.

Hitz batez esateko, ba zekien Europar Gailurrak, E. E. mami mamian ukitzen duen arazo delako eskualdeen hau; eta, Europar Elkartean Batzordeak 1973.eko maiatzaren 3an argitaraturiko bere txostenean* aitortzen zuenez, ekonomiari buruz ezezik,* inguruneari eta pentsa- eta jokamoldeari begira ere, garrantzi handia duke* eskualdeen politika batek.

Ekonomiari bagagozkio, arazo asko dira, soluzio-bideak bilatzea beharrezko egiten dutenak: azpiegitura* eta eskuarteak* ahalik eta ongien baliatu beharra, eskualde indartsuen aldirio* aldiko "birberotzeak" eta

inflazioaren beldurrak ekarri ohi duen zabalkunde planen izoztea,* lan eskuaren leku aldatzeak berekin dituen gastuak, eta abar.

Pentsa- eta jokamoldeei bagagozkie, berriz, Elkartearen barruan kontraeragingarriak dira sektore batzuen eta besteen arteko bizi baldintza desberdinegiak, batasunerantzeko bidean.

Kondairazko heredentzia eta usadiozko kultur baliok ere oso kontuan edukitzekoak dira eskualde bakoitzaren ekonomi bilakabidean.* Eta honek zera eskatzen du, kapitalak eskualde ezdukiagoetarantz* erretentzea,* tokian* tokiko langileak, beste eskualde aurreratuagoetako langilearen baldintza berdintsuetan lan eginez, bere burua jantz dezan.

Eta, azkenik, inguruneari buruz ere garrantzi handieneko dateke* eskualdeen politika. Azaleko begiratu batek nekez aurki badezake ere, eskualde behartsuen-



tzat bezain onuragarri* da arras* industriazturikoentzat honelako politika bat. Lanik eza eta emigrazioa dagoen eskualdeko pobretasuna eta gehiegizko baterakuntza dagoen eskualdeko ingurunearen hondamendia parakide baitira.

Etxegintzak, hiri zerbitzuek, eguratsaren* eta uraren kutsadurak* egunean* egunean areagotzen* dituzten arazoak konponbidean jartzeko, geografi desorekak berdintzea da eginkizunik oinharrikoena.

Beraz, politika hau ez litzateke, aberatsak txiroari* paternalismoz luzatzen dion laguntza bezala hartu behar, bizi kalitatea hobetzeko eta jasotzeko,* biek kidez kide batera daramaten elkartasunezko politika zabala baizik.

Europako eskualde politika honen funtsa* bete betean egokitzen zaio gure herriaren egoerari. Mugimendu honen mamia, guk euskaldunok beste zenbaitek baino ere sakonkiago uler dezakegula esango nuke.

Geure hirietako airearen, hibaietako uraren eta datozkeen* nukleartegiaren kutsadura dela eta, euskaldunok ere sentiberatzen hasiak gara geure inguruneaz.

Bestalde, kondaira, hizkuntz eta kultur balioei bagozkie, geuretik irten gabe ditugu arazo honen erdurik* garbienak, inorenera abiatzen hasi beharrik gabe. Eta, azkenik, ekonomi alorrean,* iparralde osoa eta hegoaldeko zenbait alderdi ere politika orekatzaile* bizkor baten eske ditugu. Txalogarri ezezik imitagarri ere, hegoaldeko zenbait entpresari* iparralderantz ematen hasi den urratsa!*

Europagintza bati begira ezezik, lehenagokoa dugun geure herrigintzari begira ere, garrantzi handienekoa dugu eskualdeen politikazko olde edo mugimendu hau. Batzuen aurreritziak deseginez, eta besteen begi lausoak* garbituz, jakingo ote dugu ordu honi dagoen jarrera* hartzen?

X. MENDIGUREN

dezake, dalke	dio, deutso
dezakegu, dalkegu	zaio, jako
dezan, daian	zion, eutson

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.
Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1)

ZUZENDARIA:

Joseba Intxausti, O.F.M.

HELBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5
Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10
D. L.: BI-1.753 - 1967

Kultur Lehiaketak

Unibertsitari arteko

I. Literatur Sariaketa

Sariaketa hau, Donostiako E.U.T.G.ko Euskal Kultur Batzordeak antolatzen du. Aurtengoa, Gotzon Goena zenaren omezez izanen da.

OINHARRIAK

- Donostiako goi mailako ikastetxeetan matrikulaturik dagoen edonork har dezake parte.
- A) Lanak euskaraz izanen dira, Euskal Akademiaren azken erregelaren arabera.
Bi sail izanen dira:
 - Poesia: guttienez 100 lerro, eta gehienez 300.
 - Ipuina: guttienez 5 horri, eta gehienez 10, tartean bi lerro utzirik. Horriek «holandesak» izan beharko dute.
- B) Gaia idazlearen aukeran.
- Lanak originalak, argitara gabeak eta beste inongo sari-keretara presentatu gabeak beharko dute izan.
- Nola igor: Hiru kopiatan, lema batez izenpetuak. Honekin batera, beste sobre ttipi bat bidaliko da, azalean lema duelarik, eta barrenean izen-deiturak, helbidea,* fakultatea, karrera eta kurtsua adieraziz.
- Nora: «Euskal Kultur Batzordea». E.U.T.G. Paseo Mundaiz. San Sebastián.
- Noizko: Epea uztailearen* 15ean bukatuko da.
- Sariak: Sail bakoitzean 10.000 pezeta sari bakarra.
- Sariak hutsik gerta litezke.
- Epai mahaikoen izenak uztailean jakin eraziko dira.
- Sari banaketa uztailearen azken aldean izanen da. Aldez aurretik jakin eraziko dira eguna, ordua eta tokia.

Mallabiko IV. Idaz Lehiaketa

Lehiaketa hau Mallabian izanen da, herri horretako jaien batzorde antolatzaileak eraturik.

OINHARRIAK

- Hamalau urterarteontzat, gaia eta tankera libre izanen dira.
- Hamalau urtetik gorakoentzat, gaiak zerikusia izan behar du Mallabiarekin, bertsoz nahiz prosaz.
- Lan guztiek euskaraz eginak izan beharko dute.
- Lanak bidaltzeko epea uztailearen* 31n bukatuko da.
- Lanak helbide* honetara bidali beharko dira: «Idaz Lehiaketa». Bar Bastida, Mallabia (Vizcaya).
- Lanak izenorde batez sinatuak izan beharko dute, kartazal hertsiki batean benetako izena bidaliz.
- Sari banaketa, Andre Mari eguerdian, abustuaren 15ean, Mallabiko pilotalekuan izanen da.

SARIAK

- Hamalau urterarteontzat:
 - Lehena: 2.000 pezeta eta trofeoa.
 - Bigarrena: 1.500 pezeta eta trofeoa.
 - Hirugarrena: 1.000 pezeta eta trofeoa.
- Hamalau urtetik gorakoentzat:
 - Lehena: 2.500 pezeta eta trofeoa.
 - Bigarrena: 2.000 pezeta eta trofeoa.
 - Hirugarrena: 1.000 pezeta eta trofeoa.

"IBERIA EXPRESS"

Portugal eta hango apezpikuak

Portugaleko Elizak hipoteka txar bat jaso du salazarismoaren garaietatik: Elizaren hierarkiak Salazar eta Caetanoren Gobernuarekin eduki zituen harremanak. O Porton aurkitzen da, orain historia haren salatari bizkorrena den kristau taldea. Izan ere, O Portoko apezpikua, Antonio Ferreira Gomes, izan baita Portugaleko apezpikuetatik hamar urte herbestean egin dituen bakarra. Eta bera da, orain Portugaleko egoera berrian bere izen ona garbi atera ahal izan duena ere. Ferreira Gomes eta Vieira Pinto (Nampulako apezpikua eta Mozambiquetik Gaetanok herbesteratua), biak dira gaur egun itzalik dutenak.

O Portoko kristau talde batek (beren apezpikua ere tartean zutela) hona zer esan duten: «Salbuespen* bakan* batzuk aparte, gaurko apezpikuek hertsiki* loturik lan egin dute, eroria den gobernumoldearekin, beronen aginduen esaneko* izanez edo ideologian parte hartuz, giza duintasunaren* kontra egindako irainak* ez salatuz, eta afrikar herriak zanpatzeko egiten ziren gerrateak moralki onhartuz».

Hain gogorki ez izan arren, Lisboako Presbiter* Kontseiluak ere aitortu ditu Elizaren erruak.* Berrogei urte horietako erruak erro eta ondoren larriak izan dituzte Portugaleko Elizarentzat. Errepublikaren haseratik* (1910) antiklerikalismo bizi bat jabetu zen aginteaz. Politika olatu horren gain dantzatuko zen 1926. urterarte hango bizimodua. Laster zatikatu ziren errepublikazaleak hiru sailetan, eskuin, ezker eta erdi, konponezinak gertatzeraino. 1925.ean ezkertiarrek irabazi zuten; baina, garaitzapen hari erantzunez, harmadak* eskuinari eman zion agintea 1926.ean. Geroztik, Salazar izan zen nagusi. Eta, Salazarrekin batera, beronen adiskide eta eskola lagun izandako Cerejeira Kardinala, Elizaren buru. Cerejeira eskeronez beterik zegoen gobernumolde zahararekin, ezkeraren atzaparretatik Elizari bakea eta babesa eman ziolako. Egia da, 1933.eko Konstituzioak Eliza eta Estatuak elkarrengandik aparte uzten zituela; baina ongi jakin zuen, bai, Salazarrek Elizarekiko politika egiten. Tradiziozko erlijio nazional bezala aitortzen zuen erlijio katolikoa, eta legezko nortasun bat ematen zion Elizari.

Eta, batez ere, egiteko handi eta zabal bat eskainiko dio Elizari Estatuak. «Irakaskintzarako instituzio bezala —dio Konstituzioak berak— eta zibilizazio tresna lagungarritzat, itsasoz haraindiko misio katolikoak eta beraietarako pertsonal prestatzaile diren instituzioak Estatuak lagundu eta babestuko ditu». Babes hau onhartzean, beraz, kolonialismoaren lanabes* bat izateko arriskutan aurkitzen zen Eliza katolikoa. Baina kolonietarako hain egoki zetorren Eliza bera, lotuta aurkitu zen Portugalen bertan. «Mater et Magistra» ez zen osorik argitara eman; eta entziklika honetatik ezagutua bera ere atalka eta nolabait itzulia heldu zen portugesen eskuetara. Goa Indiaren menpean erortzean,* Vatikanok ez du deus* esaten; erantzun bezala, «Mater et Magistra» eta «Pacem in Terris» entziklikoen komentatzerik ez da izango Salazarren erresuman.*

Apezpikuek ez dute, hala ere, eztabaida handirik agintariek. Elizatarrek egin zuten bereziki lan: «Pragma» taldea da, Elizaren irakaskintza berritua zabaltzera gehien saiatzen dena. Geroz eta gehiago dira, Gobernuaren kontra agertzen diren eliztarak. Caetanok esana da, Portugalen egiazko etsaia komunistak eta katolikoak zirela. 1973.az geroztik, geroz eta gehiago dira katoliko presondegiratuak eta zigortuak. Bien bitartean, hierarkiak ez du ezer handirik esaten, ihazko maiztzeke gutunean* ezik: apezpikuen eskutitz honek, oso bigunki bizen ere, gizabanako* bakoitzari eta gizarteko talde guztiei entzun beharra gogoratzen zien. Baina urruti bateko printzipiozko ageri honek deus guti esan zion herriari, eta gutiago oraindik askatasunaren alde burrukatzen zihardutenei. Honegatik entzuten da orain, geroz eta ozenago,* apezpikuen dimisioaren eskea.

Katalanak eta euskara

Adiskide batek bidali didan informazio hau, biziki interesgarri iruditu zait.

Lehengo batetan, lantegi batetako «erosteko arduradun» bat Kataluniako fabrika bat ikustera joan zen; eta haren harri-

tasuna, lantegi hartan katalogoak euskaraz erakutsi zizkiontenan!

Katalan batzuek euskarari merkatalgorako* balioa ematen dioten bitartean, hemengo entpresariak lo. Eta katalanak ez dira tontoak gero!

Antzeko gauza bat ikusia dugu Bilboko egunkari batetan, anuntzioen sailean. Kataluniarako ordezkari izan nahi zukeen batek, bere merituek aipatzean, beste zenbait gauzaren artean, hauxe zioen: «...con perfecto dominio hablado del catalán y el francés». Asko dira, zoritxarrez, Euskal Herrian ordezkari-tza bat ematerakoan, kandidatuak euskara dakien ala ez kontuan hartzen ez duten entpresariak. Eta burua, horregatik, ondo *baskotzat* dukete.

Mundu biribila

Portugalen, orain dela gutti arte agintean zegoen Gobernuaren aginduz, telebista, irrati eta kazetetan Afrikako kolonietako gerrillariak aipatzen ziren bakoitzean, «terrorista» deitura ezartzen zitzaizen beti. Orain, berriz, Mario Soares ministroak, gerrillari horien buruzagiak gizon guztiz prestuak* direla esan du, eta Estatuak lehendakari izateko maila publikoki aitortu die.

Gartzelatuak zeuden gerrillari gehienak, askatuak izan dira; eta geratzen direnak, gerrakoak bezala kontsideratuak dira. Aldi berean, orain arte mendebaldeko* kristau zibilizazioa komunisten eta ateoengandik defendatzen ari zen zenbait polizia oldartsu,* kriminal bezala epaitua izango dela dirudi; Afrikan egindako hilketa eta bidegabekeriengatik.

Mundu zahar honetan guttia erlatiboa da nonbait!

Hitzak eta egintzak

Entrena Cuesta jaunak Legebidea* irakasten du Barcelonako Unibertsitatean, eta egin berri ditu zenbait agerpen. Hauetatik zerbaite jakingarririk ba da. «Ikustekoak dira —esan du Entrena Cuesta jaunak— hitzaldien eta legeen artean aurkitzen diren aldeak.* Politika agerpenetan deserdirakuntzarako (dezentralizatorako, esan nahi da) borondate zabal bat agertzen da; baina, bien bitartean, oso zaila da deserdirakuntza horretarako arau eta lege bakar bat ere topatzea. Eta zentzu horretako legeren bat aurkitzen bada ere, zailago da oraindik legearen mugaketa eta konkreziorik edirotea*».

Eta gure galdera: Noizko da, beraz, dezentralizazio hori?

Raimon kantaria Madrilen

Raimon katalan kantariak olerki* liburu bat argitara du: **Poemes i cançons**. Madrilen maiatzaren lehenbiziko hamabostekoan jendaurrean aurkezteko* zen; baina ez da posible gertatu aurkezpen hori. Gobernuaren baimenik ez da lortu horretarako. Liburuaren 75 olerkiak, eta liburuaren ondoan doan diskoa, beste ereti* baten zain geratzen dira. Ba dira bost urte, Raimonek Madrilen kantatu ez duela; eta oraingo hau zen, lau urteotan Espainian kalera ateratzen zuen lehen diskoa. Hala ere, Pariseko Olympic teatroan ematen diote lana. Laster kantatuko du han laugarren aldiz.

Kazetariak:

Luis M. ARISTEGI
Joseba INTXAUSTI
Xabier KINTANA

die, **deutse**
dio, **deutso**
diote, **deutsoe**
dit, **deust**
zait, **jat**

zien, **eutsen**
zioen, **inoan**, esaten zuen
zion, **eutson**
zitzaien, **jaken**
zizkioten, **eutsoezan**



errioxa

Kariistak eta Errioxa

«Esfuerzo Común», karlistek Zaragozan ateratzen duten aldizkari bat da. Zenbaki bikoitz berezia eskaini dio berak Errioxari. Alde guztietatik agertzen du herrialde honen euskaltasuna. Irakatsi ederra ematen digute karlistek. Alde ederra, gure arteko zenbait «ezkertiarkilo»-gandik!

Hona hemen aldizkari horretan agertzen diren gai nagusiak: Errioxaren nortasuna, Errioxaren euskal aztarrenak,* Errioxarren hizkerak, Errioxar karlistak Nafarroara sartu zirenekoa, Errioxa Espainiaren herrialdekatze mugaketan, Errioxa eta Pirino berriak, Errioxa eta hango lurak, Nekazaritza eta kooperatibak, Errioxako mahasti eta ardoak, Industrializazioa, Errioxako Elizaren «beste boza», Euskara Kalagurriko* diosesian. Azkenean, errioxar gaiei buruzko bibliografia aberats aberatsa.

Merino Urrutia euskaltzain ohorezkoa, Sáenz de Buruaga, Pedro José Zabala, Millán Arduvia eta beste firma interesgarri batzuek parte hartu dute zenbaki honetan. Sáenz de Buruaga ekonomilari famatuak, bere lan interesgarrian, kezka bat agertzen du, halebria,* euskaldunok ondo hartuko ote dugun geure barrutian Errioxa. Ez du zertan beldurrik izan Naxerar horrek, baldin eta guk zuzhurtasun pixka bat badugu. Egia esan, Bizkai eta Gipuzkoatik inoiz joaten dira zenbait astakilo; baina besteok girotze lan bat egin behar dugu, lan argia, buruduna eta maitekorra.

Zenbaki hori (martxoa 15 - apirila 1) inork eskuratu nahi badu, eska lezake helbide* honetara: Fueros de Aragón, 16. Zaragoza. 50 pezeta balio du.

Euskaltzaindia Donemiliagan


Ekainaren* 15ean, Euskaltzaindiaren hilabeteroko bilera ohi ez bezalako toki batetan egin izan da: Donemiliaga* Kukulán, Errioxako lurretan. Arrazoia? Mende honetan mila urte betetzen direlako, Euskal Herriko bazter erdiahantzi* horretan lehen euskal esaldi ezagunak idatzi zirenetik.

Hori dela eta, Euskaltzaindiak, Donemiliagako aita augustindarrekin batera eta Instituto de Estudios Riojanos eta Probintziako Diputazioaren laguntzaz, bilera simboliko bat eratu zuen bertan, esaldien gomutan* harrizko oroitgailu bat ezarriz.

Bilera horretan, Alfonso Irigoien Bilbao euskaltzainak bere sarrera hitzaldia irakurri zuen euskaraz, Donemilia-

gako euskal glossei buruz; ondoren, gaztelaniaz, laburpen bat egin zuen erdal publikoaren faboretan. Irigoien jaunak topaturiko dokumentu baten arauera,* X. mendean, glossak idatzi ziren garai berean, Gartzzea Santxonis nafar erregeak kapera* batzuk* erregalatu zizkion Donemiliagako monasterioari, «qui vulgo dicitur **Cella alboheta**» (= **kela alboheta**, halebria*), glossak idatzi ziren garaian Donemiliagan jendeak euskaraz egiten zuela frogatzen* dutenak. Lehenagoko dokumentu baten bidez, bestalde, argiro dago, mende batzuk lehenago ere bertan euskaraz egiten zela, hango euskara nafar birpopulaketaren ondorio dela diotenen ustea zokoratuz. Noski, nafar konkistatzaileek bultzada bat eman zioteten* bertako euskarari; baina ez da pentsatu behar horregatik, lehenagotik ere Errioxan euskaraz ez zela egiten.

Aita Luis Villasante euskaltzainburuak, Irigoien jaunaren hitzaldiari erantzun ondoren, beroni euskaltzain osoaren diploma eman zion. Geroago Merino Urrutia jaun errioxarrak hitzalditxo bat egin zuen Errioxako euskararen gainean, eta ondoren aita Villasantek euskaltzain ohorezkoaren izendapenaren berri eman zuen, Merino jaunari bere diploma eskainiz.



Bukatzeko, Diputazioko presidentordeak, Julio Fernández Sevilla jaunak, eta Escudero jaun doktorkak, Instituto de Estudios Riojanos-ko presidentordea berau, hitz batzuk egin zituzten Errioxaren euskal eta erdal kulturei buruz, bilinguismoaren abantailak* aipatuz. Ondoren, oroitari bat agerterazi zen euskal esaldi biekjin: **Izioqui dugu eta guec ajutu ez dugu**.

Bazkaria, Diputazioaren kontura, Donedomiku* Kaltzadan egin zen. Arratsaldean, berriz ere Donemiliagara bihurturik, Susoko monasterioa ikusi genuen Tarsicio Lejarraga errioxar jatorraren eskutik; gero aita Eubak, Yusoko monasterioko prioreak, beste komentuaren arte lanak erakutsi zizkigun.

Egun gogoangarria guztiontzat, benetan, ekainaren 15ekoa. Egiaz esan daiteke, hauxe izan dela, ipar euskaldunok geure hegoaldeko anaia ahantziei ofizialki egin diegun lehenbiziko bisita. Ez dateke,* segur aski,* azkena izanen.



**ipar
alde**

Euskal Unibertsitateko antzerki saila

Aurreko zenbakian jakin erazi zenez, Donibane Lohitzu-
nen izanen da II. Euskal Unibertsitatea, irailaren* 2tik 13a
arte.

Egun horietan, beste gauza askoren artean, euskal teatroa
ere aztertuko da. Hori dela eta, Parisen bizi diren S. Arbelaitz
eta X. Irigarai gazteek dei bat egin diete Euskal Herriko an-
tzerkilari guztiei, teatroari buruzko eginkizun berezia ezagute-
raziz. Hona hemen:

- elkarretaratu egingen dira libre diren antzerki egile eta emale guztiak, eta lan horretan hasi nahi dutenak.
- elkarren ideiak agertu eta konparatuko dituzte, antzerki egiteari eta emateari buruz.
- talde bat, bi edo hirutan lan egingen dute elkarrekin; eta lan horren fruitua, Unibertsitatean egonen diren guztiei erakustera emanen diete arratsalde batez.
- antzerki oso bat emanen dute arrats batez.

Sail honen zuzendaria eta laneko moldeak lekuan berean
hautatuko dituzte denen artean. Sail honetan parte hartu nahi
duten guztiak, jakin eraz diezaietela **lehen bai lehen** goian aipa-
tu* gazteei: Euskal Etxea. 10, rue Duban. 75016 Paris (Fran-
ce).

Basusarrin herriko kontseiluak bere kargua utzi, 40 zakurrengatik

Ipar Euskal Herri honetan, orotarik* ikusten ohituak gara.
Gisa honetako azken berria Basusarritik heldu zaigu. Seiehun
bat bizilagunetako herri pollita dugu Basusarri. Baionatik sei-
zazpi kilometrotan, mendixka batzuen artean ederki kokatua,*
horrexek esplikatzeko du zergatik azken urte hauetan egin den
horrenbeste etxe berri herri horretan.

Etxe berri horietarik multzo pollit bat xarmanki* lerroka-
turik dago mendixka baten mazelan,* Axeritogarai deitu* hau-
zo berrian. Beste mazelan aurkitzen da «zorigaitzezko» zakur-
tegia, bere berrogei bat zakurrekin, Abere Zaleen Batasunak
(erdaraz SPA deituak) duela sei urte eta erdi etxalde edo ba-
serri bateko lur sail batean muntatua. Zakurtegitik lehen etxe
berrietara bospasei ehun metro daude, gorenetik. Zakur
ahausi* eta zinkurinak* entzuteko gisan, beraz!

Dezagun erran, zakurtegi hori prefeturako baimenarekin
muntatua izan dela, eta prefetuaren baimen hori herriko kon-
tseiluaren nahiaren kontra emana izan dela. Horrengatik, he-
rriak Administrazioako haurtegitara jaukitu* du prefetua, lehenik.
Eta, ondotik, kontseilu osoak bere kargua utzi du, joan den
maiatzaren hemeretziak arratscan, prefetuari eskatuz, haurte-
geriko bizilagunentzat hain kaltegarri den zakurtegi hura* ahal
bezain laster ken eraz dezan, baldin herriko arazoak berriz bide
zuzenetik abia daitezkeen nahi badu.

Itxura guztien arabera,* arazoa ez da egun batez zuzitze-
ko* gisakoa!

Urepeleko behi marka

Ba du hirurehun bat urte, maiatzaren erditsutan egiten dela
behi marka Urepele herrian. Ez dakitenentzat dezagun erran,

HEMENTXE DENOK

Urepele, Hego Nafarroako mugari loturik dagoen herri ttipi
bat dugula, seiehun bat bizilagunetako, eta, bere ttipian, Xal-
bador Aire Euskal Herriko bertsolari haundienetarik bat da-
dukana.

Behi markaz baitugu solasa,* dezagun bi hitzez erran, zer
den ohitura zahar bitxi hori. Urte guztiez bezala, udaberriko
sasoin ederra etortzen denean, Baigorriko ibarrean aurkitzen
diren Banka, Aldude eta Urepeleko baserritar zenbaitek, beren
behi eta xahalak Sorogain deitu* mendiko bazkaleku ederrera
eramaten dituzte.

Sorogain mendia Nafarroan, Erro ibarreko lurretan aurki-
tzen da. Eta bazkaz* behiak hara eramaten dituztenek, Erro
ibarreko batasunari* zerga* bat ordaintzen diote, urte guztiez
goratzen dena, noski. Aurten 825 pezeta pagatu dute buru
bakoitzeko. Joan den urtean, aldiz,* 725.

Behi markatzailea Erroko Fernando Saragueta dute, 28 urte
honetan. Aurten 230 behi markatu ditu. Lehenago gehiago
egiten zituen, zeren* eta, zenbait urte honetan, Irulegi, Lasa,
Azkarate eta Anhaizeko baserritarrek kamioiez Arnegin gain-
di* eramaten baitituzte beren behiak.

Dezagun erran bestalde, marka egunkari,* jendalde ederra
biltzen dela, Urepeleko eliz aitzinean* aurkitzen den markale-
kura, eta mugaren bi aldeetako herrigizon* kargudun asko ere
bai, gero Arkadia ostatuan bazkari eder bat egiten dutenak.

Biriatun hogeit bat etxe lurrera botako dituzte

Biriatu, Bidasoa hibaia loturik dagoen Lapurdiko herri
eder xarmantak,* seiehun bat bizilagun eta mila berrehun hek-
tarea lur eremu* dituenak, heldu* den abenduko, hogeit bat
etxe eta laborantzako bere lurrik hoberenak galduko ditu. Zer-
gatik? Itsas hegiko* autobide berria Biriatuko Kurleku deitu*
ibarrean gaindi iraganen baita. Orotara, 70 bat pertsonak be-
harko du bizilekuz aldatu, orain arteko egoitza maitagarria
utziz.



Biriatuko bi etxe, lurrera botako direnak

Etxe eta lurraldeen jabe gehienek beren ondasunen saltzea
onez* onean eginga dute ACOBA deitu elkarte bidegilearekin.
Honek zenbait ongi ordaindu die diruz. Beste batzuei ez hain
ongi. Hiruzpalauk, aldiz, ez dute traturik adiskideki egin
nahi, ACOBAk ez diela, hurbiltzekorik ere, aski* pagatzen eta.
Hauek, beraz, oraingo ustez, haurtegitan zuzitu beharko dute
beren arazoa. Beren egoitza galtzen dutenentzat, ACOBA
elkartea hogeit bat etxe berri egiten ari da, mendi mazela bate-
tan. Obra horrentzat ba ditu 60 milioi libera* zahar baztertutrik.

Ipar Euskal Herriko planteamendua eta ipartarrak

Ipar Euskal Herriko planteamendua, Gobernuko gizonen asmatua eta paperetan eman dutena, jadanik* aipatua dugu sail honetan. Orain erran behar dugu, planteamendu horretaz egin den lehen bilkura* irekia, Baionako Herriko Etxean egin izan dela, joan den maiatzaren 24ean.

Bilkura hori, Herriko Etxeak hilabetero Baionako gazte-riarentzat apailatzen* dituen mintzaldien lerrokoa zen. Han ba zen, ordea, gazteetaz beste andre-gizonik, delako planteamendu horretaz zerbait xehetasun* berri jakinen zutelakoan, gogotik etorriak. Beren uste ona laste galdu zuten, mintzalaria, Parisetik etorria zen Genzling jaunak, ez baitzien igurikatzen* zutenetik deus* aipatu!

Ez zen, hala ere, delako bilkura arras* debalde* egin izan, zeren eta entzuletarik zenbait bizi mintzatu baitzen, mintzalaria adieraziz, planteamendu horrek, doi* bat industria eta bideak aipaten bazituen ere, turismoa zuela bereziki faboratzen, eta ez nolanhiko turismoa, gainera.

Kasik erran dezakegu, Ipar Euskal Herriaz, frantses Gobernuak nahi duena egin dezakeela, lekuko herrigizonak* guttiz abulak* baititugu, eta ez baitira kapable, gure eskualdeak* behar lukeen planteamendu baten apailatzeko, eta Gobernuari hura* onhar erazteko!

Maiatzaren 26an 550 musikari Urruñan

Joan den maiatzaren 26an, iparraldeko 13 herrik parte hartu dute Urruñan musikarien zeingehiagokan, karia* horretara festa guztiz eder eta ikusgarri bat muntatzen zutela. Ba ziren orotara 550 musikari. Hauetarik 90ek dute parte hartu xapeloan.

Hona parte hartu duten herrien izenak: Azkaine, Senpere, Ezpeleta, Hazparne, Baigorri, Makea, Larresoro, Milafranga, Uztaritze, Hiriburua, Ahurti, Bidarte eta Urruñan.

Iparalde gero eta gehiago hegoaldeari begira

Iparaldeko euskaltzaleek arras* ongi dakite, hegoaldeak zer eragina duen, ekonomiako eta kulturako sailetan bereziki. Eta beren ahalekin arabera* indarra dagite,* hegoaldeko berri iparraldeko emateko.

Duela bi hilabete, Euskal Dantzarien Biltzarreak Baionan eta Donibane* Garazin eman erazi zuen «Nafarroako lau sa-soinak» deitu* erdarazko filmea. Geroztik, Ramuntxo Camblong gazteak mintzaldi bat eman du, Baionako Bilkuretxean,* Arrasateko kooperatiben mugimenduz.

Joan den maiatzaren 24ean, Baionako Herriko Etxean ireki da Euskal Herriko margolarien eta zizelkarien* lehen erakus-

keta, hegoaldeko hogeita iparraldeko beste hogeita artistaren eskulan ederrenen ezaguterazteko.

Bestalde, Baionako antzokian, maiatzaren 28an, Bizkaiko bizibidearen berri ematen duen filmea agertua izan da. Bi egun lehenago, Arrasateko kooperatibetaz beste filme bat emana izan da Donibane Lohitzuen, eta, bezperan, filme bera Hazparnen.

Nola molde bateko zein besteko agerpen horietan guztietan jendea franko poliki ibili baita, erran dezakegu, hemengo jendea kultur sail berri horri irekirik dagoela, eta ireki berria den bide horren zabalzea beharrezkoa dela orain.



bizkaia

Bilboko elizbarrutiaren boletina

Bilboko diosesiaren Boletin Ofizialak eraberritze apaingarri bat izan du. Honelako aldizkariak gehienetan aspergarri eta astunak izaten dira; baina Bilbokoak hola-ko itxura aldaketa atsegingarri bat izan du.

Sailak ere azpimarka polit batekin agertzen dira eta hizkuntza bitan: «La Iglesia en Vizcaya —Eleizea Bizkaian», «La Iglesia en España— Eleizea Spainian». Hemen antitestigantza penagarri bat aurkitzen dugu: Zergatik **Eleizea** eta ez **Eliza**? Toki ofizial batetik hori egiteari, euskara batuarekin aurrez aurre jartzea deritzagu. Paulo Agirrebaltzategi elizgizonaren artikulua interesgarria da-torkigu burura.

Baina beste arazo batek zeharo ukitu gaitu geure euskaltzaletasunean. Iruineko artzapezpikuaren gutun* bat lehen aipaturiko bigarren sail horretan agertzen da. Nola izan daiteke hori? Konturatzen gara, sail hori jartzeko beharren bat dagokeela; baina ba dira hor sartzeko hainbat artzadiosesi (Granadako, Valladolidekoa, eta abar) eta zenbatgura diosesi. Baina lehen eta bigarren sail horien artean, ez ote dago, «Eliza Euskal Herrian» izeneko beste sail bat sartzeko modurik?

Tarragona, Santiago, Granada eta Sevillako eliz probintziez baliaturik, Kataluniako eliz artzainak La Seu d'Urgell-en, Galiziakoak Santiagon, eta Andaluziakoak Montillan biltzen zirelarik, ez genuen ulertzen, hengoak, Bilbo eta Gasteizko diosesiak nola ez ziren elkartzen —legez eta ganorez,* ez izkutuka*— Iruineko eliz probintzian bederen.* Baionakoa ez elkartzea, ulergarriagoa da gaurkoz; baina beste biak... Orain ikusten dugu zergatik den hori: Iruineko artzapezpikua eta Bueno Monreal sail berean sartzeko baditugu...

Gure diosesiko agerkari nagusian, gure ustez, eskandulagarriegia da bekatu hori.

Lejoako Unibertsitateko mintzaldiak

Azken bolada* honetan, Lejoako* unibertsitariak kezakati agertu izan dira, nuklear zentralek Euskal Herrian sor lezaketen kutsaduraz.*

Zentral hauek eta energi mota honek sortzen dituzten problemak berri zehatzagorik ukateko,* hitzaldi batzuk antolatu dira Unibertsitatean. Euskaldunontzat interesgarri delakoan, hitzaldi horietan aztertutako puntuak aipatu-ko dizkizuet.

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa



Liburudenda
Euskal liburuak

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Maiatzaren 23an, J. Allende ekonomilariak, Ogellan (Izpazterren) egiteko den nukleartegiaren alderdi sozio-ekonomikoak azaldu zituen. Projektuaren kontra bere erantzuna prestatzeko ukan dituen trabak jakin erazi ondoren, Izpazter eta Lekeitio inguruko bizilagunentzat nukleartegiak ukan ditzakeen desabantailak* agertu zituen, beste gauza batzuen artean.

Maiatzaren 27an, I. Esteban kimikalaria Bizkaiko Golkoko* kutsadura kimiko eta radioaktiboaz mintzatu zen. Jaun honen lana, Santanderetik Ondarroarainoko uren kutsadura neurtzea da. Haren neurketen arauera,* azken urteotan gure itsasoko bizidunen kopurua* modu beldurgarri batez gutitu da. Eta gutitze hau areagotu* egiten da Bilboko superportuaren eta nukleartegiaren eraginez.

Ekainaren 3an, J. R. Etxebarria injinadoreak nukleartegiaren alderdi teknikoei buruz berba egin zuen. Honek, nukleartegiaren funtzionamendua eta beronen ondorioz hableharrez sortzen den kutsadura azaldu zuen. Bestalde, kutsadura radioaktiboaren arazoa teknika aldetik gainditu gabe dagoela azpimarkatu zuen.

Ekainaren 4ean, A. Negueruela injinadore eta medikuari tokatu zitzaion hitz egitea. Radioakzioek gizonaren zelula eta geneetan duten eragipenaz* mintzatu zen. Haren eritziz, geneen izakera aldatuz gero, seme-alabengan edo ondorengoengan ere gerta daitezke gorputz aldakuntzak.

Azkenik, ekainaren 5ean, aipatu* hizlarien laguntzaz, jendaurreko elkar hizketa bat egin zen. Elkar hizketa honetan hainbeste lagunek hartu zuten parte, eta bertan puntu hau agertu zen argiro: kutsaduraren arazoa konpontzeko, denok egin behar dugu zerbait, eta, horretarako, lehenik informazioa eman behar zaio jendeari. Gu ere batera gatz horretan.

Segi gogor, Lejoako unibertsitariok!

Euskal dantza eta musika tresna zaharren eguna Barakaldon

Uztailaren 13an, larunbatez,* Barakaldon, Euskal Herriko dantza eta musika tresna zaharren erakusketa handi bat eskainiko da, herriko Andre Maria Karmengoaren jaien atari bezala.

Parte hartuko dutenak: Zuberoako dantzariak, «Maskarada» bertan egiten dutenak. Etxahun xirulari eta ber-



Piarres Bordazaharre «Etxahun» xirularia

tsolariarekin; Baztango dantzariak, Maurizio Elizalde txistulariarekin; Zubietako zanpantzarrak; Zumarragako ezpatadantzariak; «Bizkai» taldea Lantzeko* «Ihauteri»-ekin; trikitia, dultzaina, txistua, alboka, eta abar.

Ordua, arratseko 9.30. Barakaldora joateko: Bilbotik Santurtzerako trena, 10 minuturik 10 minutura; Bilbotik Barakaldorainoko autobusak, 10 minuturik 10 minutura, Bilboko Areatzan.* Etortzeko: autobusak gaueko 12ak arte, eta trena gaueko ordu bata arte.

Mungiaiko baserritarrei erdaraz omenaldia

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, baserriar baten irudia eraiki da Mungiaiko enparantzan.*

Hala ere, aurten, egun horretan, ez zen baserriar askorik kaleetan. Ba zekiten, zoritxarrez, inaugurazioa erdaratutsean izango zela; eta ondo ezagutzen zuten, omenatuak izango ziren baserriar bien jokaera. Bestalde, esnearen arazoaren ondoren, nahiko barregarri zirudien omenaldi honek. Horregatik edo, eguerdiko bazkarian, 400 mahaikideetatik 30 bat bakarrik ziren baserriar dihardutenak.

Hala ere, gure baserriarrek ez dute protesta handirik egin agerian, nahiz eta ixilka-mixilka botatzekoak bota. Uribe-Butroen eskualde* honetan ez da baserriar gazterik. Azken martxoan bertan, 20 urtez gorako baserriar asko lantegiratu zaigu. Etxalde onaren jabe izan arren, bakoitzak ezin gehiago. Hori hola delarik, nor ezer esateko, nor protesta egiteko?

Mungiaira zatoztenean, agur* zazue gure baserriarra, ez, otoi, harrizkoa, oraino bizi den zokoratua baizik.

Otxarkoagako abesbatza

Orain dela zenbait urte, kanpotik etorritakoek hainbeste txabola* kaskar eraiki zuten Bilbo inguruan. Agintariak txabola horik* botatzeko agindu zieten, eta Otxarkoagan etxe berriak eskaini. Beharbada 20.000 kanpotar bizi dira Bilboko haurtegi horretan, baina semeak bertan jaio zaizkie.

Inguruneke giroak bere lana egin du, eta Otxarkoagakoek abesbatza* eder bat sortu dute. Oraintsu, ekainaren 8an eman dute beren lehen saioa, haurtegiako elizan. Bertako abesbatzarekin, Basauriko koral famatuak eta «Deustuarrak» kantari taldeak ihardun dute.

Otxarkoagan abesbatza bat sortzea berez albistea bada, areago* aipaturiko saioa, zeren,* seinak kanturen artean, Deustuko taldeak euskaraz bi eta Basaurikoak hiru bakarrik eskaini zituztelarik, Otxarkoagakoak lau kantatu baitzituen, txapeldun geratuz.

Horra kanpotarrak etxekoei bide zuzena erakusten!

Galdakaoko «Andra Mari» taldea Bordelen

Galdakaoko «Andra Mari» folklore taldeak saio bi eskaini ditu Frantziako Bordelen,* ekainaren 8 eta 9an. Handik etorri eta gero, beste ihardunaldi bat ukan* du Galdakaoko «Regio» zinematokian, ekainaren 15ean.

VII. Umeen Euskal Jaia Durangon

Durangon, ekainaren 9an, herriko San Antonio jaien lehen pausoa bezala, VII. Umeen Euskal Jaia ospatu zen. Durangoko Tabirara ehundaka bildu ziren haurrak, Bizkai, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorriak.


Lehenik euskarazko meza, ondoren herrian zehar kalegira, eta eguerdiko 12.30 orenetan* Ezkurdi pilotalekuan ume dantzarien ihardunaldia. Bazkaria Durangoko familiek eskaini zieten, eta arratsaldean berriro ekintzara. «Txoritxu Alai» taldeak eratu zuen jaia.

Txistularien bilera Somorrostron

Enkartazioetako Somorrostro Haraneko zazpi udaletako* txistulariek beren lehen bilera* egin dute, ekainaren 23an, igandekari,* Muzkiz* herrian, Santander herrialdeko muga alboan.

Goizean txistularien kalegira eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteak bertan duen ordezkartzaren* batzarrea. Eguerdian kontzertua. Bazkaria herriko familiek eman zieten, eta arratsaldean berriro ihardunera, Muzkizko herria alaitzen eta pozten.

Oraintsu arte nork uste izango zukeen, zeharo erdaldundua den herri horretan txistulariei hain harrera ona eman zekiekeenik! Ondorio pozgarria hauxe: Udaletxeak* txistu akademia berri bat zabaldu eta babestuko du, eskualdeko txistulari ordezkartzak kudeatuko* duena.



gipuzkoa

Euskaldun fraide eta seroren bilera Oinatin

Aldizkari honen 276. zenbakian esan genuenez, uztailearen* 8tik 13ra, ikastaro bat izanen da Oinatik Beneditar Seroren* monastegian. Gaia: Eliz Otoitza gaurko Euskal Herrian.

Aste hori bereziki fraide eta serorentzat eratu izan arren, han izanen dira bai apezak eta bai zenbait laiko ere.

Bilduko direnen asmoa hau da: Euskaldunek beren Eliz Otoitza euskaraz egitea, fraide-seroren elkarteetan behinik behin.

Ikastaro honek bi hitzaldi nagusi eta beste bi txosten* ttipiangoak izanen ditu egun bakoitzean. Elizkizun batzuk* ere eginen dira, nahiz taldeka, nahiz herriarekin batean. Hona hemen ikastaroko gaiak eta hizlariak:

Xabier DIHARCE «Iratzeder», OSB. Belokeko Abadea.
Otoitza gaurko euskaldunen artean.

Paulo AGIRREBALTZATEGI, OFM. Erromako Antonianum Unibertsitatean irakasle. Tolosa.
Otoitza elkar bizitzan.

Iñaki OÑATIBIA, Apeza. Gasteizko Teologi ikastetxe nagusian irakasle.
Eliz Otoitza berritzean erabilitako burubide nagusiak.

Errupin MUXIKA, OSB. Lazkao.
Eliz Otoitzaren kondaira eta zatiketa.

Ixidore BAZTARRIKA, OSB. Estibalitz.
Eliz Otoitza eta Eukaristia. Teologi eta lege aldetik azterketa.

Emiliano OZAETA, OSB. Estibalitz.
Bibliako testuak Eliz Otoitzaren eraketan. Eliz Otoitzari buruz Kontzilio ondoko lege edo errubrikak.

Iñaki ERAUSKIN, Apeza. Donostia.
Musikaren garrantzia Liturgian eta Eliz Otoitzean bereziki.

Martin LASA, Lasalletarra. Irun.
Eliz Otoitzari buruz euskaraz agertu diren lanak.

Lino AKESOLO, OCD. Markina.
Otoitza euskal literaturan.

Pedro NUÑEZ, SSS. Deustu eta Gasteizko Teologi ikastetxe nagusietan irakasle.

Salmoen kondaira eta esannahia. Salmo berriak sortzeko bideak.

Agustin APAOLAZA, OSB. Estibalitz.
Salmoen kristautasuna. Salmotegi berria. Egindako lanaren azalpena. Zuzentzeko burubideak. Salmoen estruktura jatorra eta Eliz Otoitzean erabiltzeko erizpideak.

Juan Maria LEKUONA, Apeza, Donostia.
Olerki aldetik salmoen azterketa.

Eugenio AGIRRETXE, OFM. Bilbo.
Eliz Otoitza gure Pastorean.

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek, jakin eraz diezaietela lehen bai lehen Oinatik Beneditar Serorei. Diruagatik inor ez dadila geldi ikastarora joan gabe, ongile batzuek eskaini baitute laguntza berezia.

Euskal mendigoizaleen bilera Elgetan

Maiatzaren 19an, Euskaldun Mendigoizale Elkartearen urrezko ezteiak ospatu ziren. Elgetan hain zuzen, hango Udaletxean* sortua baitzen elkargo hau, 1924.eko maiatzaren 18an.

Holakoetan ohi den legez,* gonbidatu ofizialik ez zen faltatu, etxetik hasi eta batez ere Madril aldetik. Hainbesteren artean, han zegoen Martínez Masó jauna, Kataluniako Federazioaren lehendakari dena.

Goizeko 11etan Meza Nagusia, mendigoizale zirenen alde. Gero, euskal dantzak, eta indar probak Endañetaren kargu.

Jaialdiari bukaera emateko, anaiarteko bazkaria, agintariek batera. Bazkalostean,* hitzaldiak, Iriondo, Martínez Masó, San Román eta Salmerón jaun agurgarrien kontu. Erdaraz, noski. Baina ez denak. Oso txalotua izan omen zen Martínez Masó jaunaren mintzaldia, katalanez.



ELAI SALAI YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA



Liburu berriak

1. BARANDIARAN, Ignacio:

Guipúzcoa en la Edad Media. Protohistoria y Romanización.

Ed. de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia, 1974.

Liburu ttipi baina haundi baten aurrean aurkitzen gara, Inazio Barandiaranen liburuska hau eskuetan dugula. Ofizioko gizon baten lana da; izan ere, autorea Zaragozako Unibertsitateko Agregatua baitugu. Azken bolada* honetan, nahiko jakin mina somatzen da gure artean lehen garaietako historiaz, bai eta erromatargintzaz ere.

Zozokeria irudituko litzaidake, ohar honetan inolako kritika bat egiten hastea. Esan dezadan laburki: ehun horrialde ozta* ozta dituen lan hau, garai haiei buruz oraingoz dadukagun laburpenik onena dugu. Zalantzarik gabe. Eta ikasmin diren guztiek heldu* beharko diote, beren lehen urratsak* ematean.

Azpimarka dezadan garrantzizko zerbait: bibliografia oparo* eta bete bat dakar, irakurleak gerora egin ditzakeen bilaketetarako lagungarri bezala. Gainerako euskal herrialdeei eta Euskal Herri osoari buruz beste horrenbeste egingo balitz, histori laburpen xarmanta* genuke geure kondairazaleentzat. Biziki gomendatzen diogu irakurleari idazlan hau. Gure eskuzarta beroena egileari.

2. VILLARREAL DE BERRIZ, Pedro Bernardo:

Máquinas Hidráulicas de Molinos y Herrerías.

Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

Donostia, 1973.

Hain famatua izan den liburu honek, izenburu luzeagoa du. Hona, osorik nola den: «Máquinas Hidráulicas de Molinos, y Herrerías, y Gobierno de los Arboles, y Montes de Vizcaya. Por Don Pedro Bernardo Villa-Real de Bériz, Cavallero del Orden de Santiago. Dedicado a los Amigos Cavalleros, y Propietarios del Infanzado del muy Noble, y muy Leal Señorío de Vizcaya, y muy Noble, y muy Leal Provincia de Guipúzcoa». Titulua luze bezain bitxia duen liburu. Madrilen eman zen argitara lehenbizikoz, 1736.ean. Harez gero laudorioz betea izan da liburu hau, eta ezin hobeto dator orain guztiontzat bigarren argitaraldi hau, aspaldian baitzegoen agortua lehen hura.*


Euskal ola* zaharrei buruz arduratu direnengandik hamaikatxo txalo jaso ditu Berriz zaldunaren* idazlan klasiko honek. Klasikoa diot; izan ere, gure burdingintzaren teknikak ezagutzeko, liburu aparta baita **Máquinas hidráulicas** hau, aparta eta garai haietatik datorkigun bakarra.

Hiru parte ditu liburuak: lehenean, ola zaharretako urbide eta ursarbideak aipatzen dira; bigarrenak, lantegi barneko tresneria eta lanabesak* aztertzen ditu: hauspoak, gurpilak,* eta abar; hirugarren parte basoei buruz ari da, basoen murriztea geroz eta larriagoa baitzen nonbait Berrizen garaietan, eta ola haiek basoa behar baitzu-

ten, eten gabe, beren sutegietarako. Liburu kurioa eta irakurgarria hauxe, euskal teknikaren historia ezagutu nahi dutenentzat.

Martin de Ugalde eta Soljenitsyn

Bilboko liburudendetan aipatzen denez —eta ba dirudi, Donostiakoetan ere berdin gertatzen dela—, Martin de Ugalderen **Hablando con los vascos** liburu Soljenitsyn Nobel Saridunaren **Gulag Arkhipelagoa** baino hobeki saltzen da.



Honez gero edizio arrunta* agortua da; eta salgai gelditzen den bakarra, koadernaturik agertzen dena da. Arrakasta* ederra, nonbait!

Kooperatibak Euskaltzaindiaren alde

Ba genekien, Caja Laboral Popular-ek aurtan 100.000 pezetako laguntasun bat eman diola Euskaltzaindiari; baina, portaera jator honi jarraikiz, ULARCOK, Arrasateko kooperatiba elkarte bat berau, beste 100.000 pezeta eman dizkio gure Herriaren lehen erakunde honi.

Dakusagunez,* euskal kapitala euskal kulturaren alde jokatzen hasia da, eta berau pozgarriztat dadukagu. Interesgarria, bestalde, empresa hau kooperatiba izatea. Osterantzeko* erakunde kapitalistei ez zaieke* beronen oihartzuna* hain arin helduko.

dezadan, **daidan**
dezagun, **daigun**
dezake, **daike**
dezakegu, **daikegu**
dezan, **daian**
die, **deutse**
diegu, **deutsegu**
diete, **deutsee**
diezaietela, **deioeela**
digute, **deuskue**
dio, **deutso**
diogu, **deutsagu**
diote, **deutsoe**
ditzake, **daikez**
ditzaten, **daiezan**
dizkio, **deutsoz**
dizkiote, **deutsoez**
dizkizuet, **deutsuedaz**
lezake, **leike**
lezakete, **leikee**
litzaidake, **litzakit**
zaie, **jake**
zaigu, **jaku**

Albistariak:

Eugenio AGIRRETXE
Joxe Ramon BELOKI
Jose Ramon ETXEBARRIA
Joseba INTXAUSTI
Xabier KINTANA
Gehexan LANTZIRI
Jose Luis LIZUNDIA
Isidor MENDIETA
Joan Mari MENDIZABAL

zaio, **jako**
zaizkie, **jakez**
zazue, **eizue**
zekiekeen, **eitekioen**
zien, **eutsen**
zieten, **eutseen**
zion, **eutson**
zitekeen, **eitekean**
zitzaion, **jakon**
zizkigun, **euskuzan**
zizkion, **eutsozan**

Chestertonen mendeurrena

Garai batean ezagunak eta miresgarriak izan ziren Ingalaterran Bernard Shaw irlandes protestantearen eta Chesterton katoliko ingelesaren arteko eztabaidak. Agian* gaur ahanziak edo ditugu idazle bikain haik.* Chestertonen mendeurrena* ospatzen da orain, eta ez litzateke gure artean ere erabat* ahanzi behar.

Ingalaterran bapatean* zabaldu zen Chestertonen izena. Nola eta zergatik, ordea? Hego Afrikan ingelesaren eta boer-en arteko gudatea piztu zen (1899): holandeseak han utzi zuten zuriaren gizarteak ez zituen ingelesak onhartzen. Ingalaterra erdibitu egin zen, gerla haren aurrean: guda-zaleak batetik, bakezaleak bestetik. Chesterton ez zegoen talde haiekin, baina boer-en aldekoa agertu zen. Eta begira zernolako arrazoinengatik: boer haiek beren lurretan abertzale izateko eskubidea zutela esan zuen idazleak, ingelesek Ingalaterran abertzale izateko eskubidea zuten bezalaxe. Kolonialismoa hain maite zuen Ingalaterra harentzat, benetan arrazoin bitxia atera zuen Chesterton paradoxazaleak.

Langile idazleen patu* gaiztoa

Pobre eta eskale izatea, bai dela zori gaiztoa! Miklos Haraszi Hungariako langile idazleak esango luke horretaz zer-bait.

Editorial batek langileriaren bizitzari buruzko liburu bat eskatu zion, eta berak lantegi bateko lanaz idatzi zuen liburu hori. Lantegi hartako soldata eskasak aipatzen zituen Haraszti, langile «sozialista» baten bizimoldea ere ez dela erosoago* adieraziz.

Atzeman* eta presondegiratua izan da Miklos, gero libre utzia izan arren. Eta hark esana gezurtatzeko (!), lan soldata-igan erazi egin behar izan ditu Gobernuak. Dirudienez, egin, egin liteke; sala, ordea, ezin liteke inola ere.

Lantegi ugazaben* irabaziak URSSn

Sobiet Batasuneko Ekonomi Plangintzarako batzordeak* eman du bere 1973.ean egindakoaren berri. Batzorde honen ageria aztertzen duenak, zera ikus dezake berehala: urte horretan, Estatuaren enpresen irabaziak 12 % gehitu dira; emankortasuna, berriz, 6 % emendatu* da. Baina langileria-entzako soldata ez dira hobetu neurri berean: 3,7 % bakarrik irabazi dute alokairuek.* Ba da hor akatsen bat.

Merkatu Komuneko eritziak Europari buruz

Frantziako azken hauteskundeetan ikusi dugu nolako zehaztasuna duten sundaldiek,* aurretiaz* haiek emandako zifrak eta gero botoen kontaketa bildutakoak berdin antzekoak izan baitira. Sundaldi hau ongien egin dituztenetarikoa bat «Institut français d'opinion publique» izan da, eta orain erakunde* honen eta Europako beste zazpi sundaldi berezi bat egin dute Merkatu Komuneko Estatuatan. Erakunde horien nolakotasuna ezaguturik, bildutako erantzunak errealitatek hurbil daudela esan genezake.

Ikus dezagun, bada, nola ikusten duten europarrek Merkatu Komunaren eta Europaren beraren etorkizuna.

1. galdea: Nola hautatu behar litzateke Europako Parlamentua, Estatu bakoitzeko Parlamentuen bitartez ala zuzen europarren botoez?

	bitartez	zuzen	erantzunik ez
Belgika	52	14	34
Dinamarka	36	43	21
Alemania	69	12	19
Frantzia	51	18	31
Bretainia Haundia ...	33	49	18
Irlanda	45	31	24
Italia	64	12	24
Luxemburgo	67	12	21
Holanda	62	16	22

2. galdea: Nahi zenuke* Europaren batasun politikoa?

	bai	ez	erantzunik ez
Belgika	58	12	30
Dinamarka	28	58	14
Alemania	70	12	18
Frantzia	57	16	27
Bretainia Haundia ...	26	54	20
Irlanda	35	41	24
Italia	65	12	23
Luxemburgo	69	13	18
Holanda	55	23	22

Alegiazko* mundutik egiazkora

Literatur munduan nork ez du ezagutzen Garcia Márquez? Elaberrri* eta ipuinlari bezala, bereziki «Ehun urteko bakartatea» liburuagatik, egunotako izkiriatazaile hobereketakotzat jo dezakegu.

Pariseko «Le Nouvel Observateur» astekarian irakurri dugunez, literatur mundu zoragarri horretatik politikaren mundu zikinera pasatzea erabaki omen du colombiar elaberrigileak. Hemendik aurrera, Sartre eta beronen gisako* jende zalapartariekin batera, hor ikusiko omen dugu Hego Amerikako faxismoak salatzen. Hots,* faxismoaren fenomeno aztertzeke eta beronen berri emateko soilik erabiliko ei* du luma.

Zer adierazten digu jokabide honek? Literaturaz etsitu* ote du Garcia Márquezek? Munduko literatura en-gaiatu* guztiak ez ote dira gauza, faxismoari oldar-tzeko?*

Gizonaren adimenduak hiru milioi urte omen ditu!

Gizonari noiz eta nola bururatu ote zaio, egun* duen adimenduaren lehen pindarra*? Bat batean, duela hiru milioi urte, austrolopitecus izenez deitzen duten eta Afrikan sortu zen gizonari ote?*

Eguno jakintzaren arabera,* bai. Zeren* eta Gizonaren Museoko zuzendari orde den Yves Coppens jakintsunak, Etiopiako lurretan kudeatu* dituen lurmiatzeetarik* jalgi* dituen arrazoinerako ondorioek, hori erakustera ematen baitute. Mia-

tu* dituzten lurretan, Jean Chavaillon prehistorilariak nasaiki* aurkitu dituen lanabesak* edo laneko tresnak, giza adimendu kreatzailearen lekuko* agertzen baitira.

Yves Coppens jakintsunak dienez, beraz, oraingo jakitatearen arabera, gizona Afrikan sortu da eta duela bi milioi urte handik atera Asiako eta mundu zabaleko lurraldeei buruz, Etiopian aurkitzen den Afar deitu eskualdetik eta Itsaso Gorriaren hegoaldean aurkitzen den Bab el Mandeb deitu* lurmuturretik. Hau ere, usteen lerroan ematekoa da, noski; baina uste hau, dela Chad-en, dela Kenian, dela oraino Tanzania eta Etiopian eginak izan diren lurmiatzeek erakustera eman duten ustea da. Jakintza bidez finkatua den ustea, beraz.

Gogora ditzagun, jakintsunak finkatu dituzten urtemuga larrien hauk:* lurrak bost miliar* urte ditu. Biziaren lehen itxurak, duela hiru miliar urte agertu ziren lurrean. Bostehun milioi urte geroago agertzen dira lehen bizkarrezurdunak.* Beste berrehun milioi urte berantago lehen ugaztunak,* eta hauek gizona, guztietan aitzinatuenak.* Oraingo ustez, duela hogeitamar bat milioi urte agertu zen, bere ahaide hurbilenak zituèn ximinoekin batean.

Egiptoko Kairo hiria hegoaldean aurkitzen den Faium deitu hezurrobi haundian eginak izan diren ikertzeek* argitara eman dituzte gizonaren eta ximinoaren arbasoen* hezurak. Hogeitamar milioi urteren tarte horretan bizi zirenak, eta biek hogeitamasei hortz* zituztenak. Apadium eta parapitecus izenez deitzen dituzte. Eta hezurrobi berean aurkitu dituzte propiopitecus deitu dutenaren hezurak ere. Honek hogeitamar milioi urte ditu, eta hogeitamabi hortz bakarrik! Iduri duenez, hau omen da gizonaren eta ximinoaren azken arbasoa.

Orduz geroztik, ximinoaren eta gizonaren iturburuak elkarretarik bereizten dira. Orduko ximinoen adarra* oraingo ximino motetaraino helduko da; eta orduko giza adarra, berriz, oraingo gizonetaraino.

Hogeitamar milioi urteren tarte horretan, Afrika aldeko lurrak berotzen hasten dira; eta ordu arte oihan haundietan abarretarik abarretara zebiltzan gizonak, oihanak edo basoak idortearekin* suntsitu* zirenez gero, bortxatuak dira lurraren gainean kurrizera, berentzat eta beren umeentzat janari zerbait aurkitzekotz. Eta, bortxaren bortxaz ikasi zuten bi oinen gainean zutik ibiltzen. Leakey jakintsunak aurkitu ditu, Keniako hezurrobi batetan, beren bi oinen gainean zutik zebiltzan gizon haien hezurak. Bi gizonenak, xuxen errateko.* Lehenak, keniapitecus africanus bataiatu duenak, hogeit bat milioi urte ditu. Eta bigarrenak, keniapitecus wickeri deitu duenak, berriz, hamalau milioi baizik ez! Azken hau harrimutur zorrotz batzuetaz baliatzen omen zen, hiltzen zituèn abereen hezur eta buruinen biltzeko! Honen gisako giza hezurak Indian, mendebaldeko* Pakistanen, Txinan, Grezian eta Toskanian ere aurkituak izan dira.

Keniapitecus deituen ondotik agertu ziren austrolopitecus deituak. Duela sei milioi urte agertu ziren, eta duela milioi bat urte suntsitu. Haien hezurak toki askotan aurkituak izan dira. Eta bereziki, Etiopian, Homo (Gizon) deitu* ibarrean egindako lurmiatzeetan.

Hezurrobi honetan eginak izan diren sei lurmiatzeetan, berrogeitamar bat tonelada hezur aurkituak izan dira, orotara* ehun eta berrogeitamar bat bizkarrezurdun mota agertzen zituztenak. Horien guztion artean, bi austrolopitecus mota bereizi dituzte, duela bi milioi urte bizi zirenak. Lehena, austrolopitecus robustus deitzen dutena. Azkarrena.* Metro bat eta berrogeitamabost gora neurtzen duena. Bigarrena, austrolopitecus africanus deitu dutena, gizon itxura gehiago duena. Lehena belarjalea da bakarrik, eta haren buruak 550 cm'ko barnea du. Bigarrenak, aldiz,* orotarik jaten du, burua ttipiagi badu ere: 444 cm'.

Horien ondotik agertzen da, homo habilis deituko duten gizona. Orotarik jaten duena. Haren burubarneak 680-770 cm' neurtzen ditu. Bere aitzinekoak baino zerbait finagoa da. Honen

ondotik etorriko da homo erectus deitu gizona, zeinengandik sortuko baita Neandertaleko gizona, eta honengandik, berriz, oraingo homo sapiens deitu gizona.

Horra, egun,* jakintzaren arabera nola esplikatzin duten lur honetako gizonaren agertzea eta itxuraldatzea. Ba dira, noski, anitz* gune* gizonaren historian, ilunpean daudenak, eta beharbada behin ere argituko ez direnak.

Baldin, gizona mendez mende osoki itxuraz aldatu dela, historiak erakusten digun gauza segura bada, berdin gauza segura da, haren baitan* kokatu* den gogoa, teknika aitzinatuenaren sortzaile izan dena, ez dela oraino bere abere harotik osoki jalgia eta gizondua.

Gose oporrean hil

La Croix egunkariaren eritziz, 1920.etik hona gertatu ez zena jazo* da egun hauek Ingalaterran: Michael Gaughan 24 urtetako irlandes katoliko gaztea hil izan da gose greba* baten ondorioz, presondegi batetan zegoe-larik. Hemendik aitzina, mutil horren izena Irlandako martiriaren zerrendan idatziko dute.

Bestalde, bi neska gazte, Price arrebak, baldintza berdinetan gose oporrean sartuak dira maiatzaren 17az geroztik. Osasunez biziki hein* ahul* eta larritan dira. Jenkins barneko ministrak ez die onhartu Ulstereko presondegiara aldatzerik.

Ondorioz, ingeles eta kanpo herrietako behagileek* diotenez, orain arte gertatu ez den bortizkeria* sortuko da Irlandan ingeles Gobernuaren kontra, IRAREN erantzunez.

Bizkitartean,* Irlandako gertakarien eraginez edo, ingeles Gobernuak gaitzeko* aitzinurratsa* eman du Eskozia eta Gales herrialdeen faboretan. La Croix kazetak dienez, Londresko Gobernuak askatasun eta eskubide gehiago emanen die lurralde biotako Parlamentuei barneko arazoetan: osasungintzan, hezkuntzan,* ekonomian eta kulturari. Alegiazko* solasak* baztertutik, agian* xede* eder hau egia bihurtuko da.

Idazleak:

Xabier GERENO
Joseba INTXAUSTI
Mañex LANATUA
Gehexan LANTZIRI
Jon SUDUPE

daude. **dagoz**
dezagun. **daigun**
dezake. **daike**
dezakegu. **daikegu**
die. **deutse**

digu. **deusku**
ditzagun. **daiguzan**
genezake. **geinke**
zaio. **jako**
zion. **eutson**

SANTIAGO AMANN Y ALEGRIA, S. A.

ALTZAIRU BEREZIAK
"Bellota" eta beste marka bikainak

Telefonoak: 411735 - 411746
Agirre kalea, 30

Bilbo-11

KATEAK

Langilearen alde dihardugunok, lana saltzen duten guztiak berdinak ez direla kontuan hartu behar dugu. Teknikalari batetatik peoi edo langile soil batetara, bai alokairuan* eta bai lanean bertan ba dago alderik.* Systemako esturturen aldaketak ez ditu berez arazo guztiak gairditzin, nahiz eta, egia da, horretarako laguntzen duen. Nazio arazoa, adibidez, horietako bat da; eta langileari berari dagozkion beste arazo asko ere, berdin geldi daitezke konpontzeke,* aldaketa hori lantegi barruraino sartzen ez bada.

Zer programma dugu, ezberdintasun horik* desegiteko? Sozialismo batetan, taylorismoa onhar liteke? Taylor-ek, produktibitatearen bila joanik, lana zatitu egin zuen, hura* lan apurrak bihurtuz: langileak, horrela, beti mugimendu berdinak eginez, abiada haundia lortuko zukeen bere lanean.

Kapitalismoak, taylorismoa onhartzean, «kateak» sortu zituen, eta langile soilak haien zerbitzari bihurtu. Langile soilak benetan kateaturik dago, lanerako adimenik ez du behar, bere kabuz* ezin dezake ezer egin, makina bat balitz bezala dena goitik ezarri baitatorkio. Taylor-en eritiz, «langileak lantegian ez du pentsatu beharrik», dena pentsaturik eman behar zaio, haur bati ahia* ematen zaion legetxe.*

Langile soilak ez du bere lana bereganatzen. Arrotza da beretzat bere neketik irteten dena. Haren lana era batekoa da beti, monotonoa, aspergarria (pentsa dezagun: egun osoan torlojoak* jartzen). Haren egoera ezertarako kontuan hartu gabe, rythmoa ere ezarri egiten diote. Lanaz bere burua zakartu* egiten du, aberetu, eta askotan nerbioak apurtu. Langile soilaren nortasuna ez da lanaz osatzen. Lana dirua irabazteko bide bat besterik ez da, bide nazkagarri bat, eta inork baino diru kopuru* urriago bat irabazteko, gainera.

Langile soil gehienak gazteak dira, kanpotik etorritakoak eta emakumeak batik* bat. Denak, ahal den lasterrenik alde egiteko gogoaz: emakumeak ezkontzaren bitartez, eta besteak lan mota betegarriagoren bila joanez.

Kapitalismoak, langilea ideologiaz eragin ezinik, kateak onhartu ditu, lana hobeki neurtzeko eta kontrolatzeko. Baina kateak bere alde txarrak ere ba ditu: greba* ugari, kalitate urria eta abar. Behin lagun batek esana: «Niri katean bi sukalde elkarregei etortzen bazaizkit, bati ezkutuan bultzada bat emanez, hondatu egiten dut».

Luzarora begira, arazo honen irtenbidea automatizatzean datza;* eta non sozialismo baten barruan baino leku hoberik aurrerakuntza horretara heltzeko?

Bitartean, hiru modutara joka dezakegu horren alde:

1. Denok, geure biziko garai batetan, horrelako postutik pasatuz, gaur egun Txinan egiten duten bezalaxe.

2. Guztiok berdín antzera irabaziz. Segur gaude, hala eta guztiz ere, ez dela teknikalaririk katera jaitziko.

3. Taylorismoaren ordez, «taldeko lana» eginez. Langile talde ttipiak moldaturik, talde bakoitzak bukatua ateratzen da produktua. Talde baten barrenean, postu bakoitzeko lanak osatuagoak dira eta elkarren artean aldakorak. Langileak, horrela, ez du hain lan aspergarririk; eta produktibitatearen aldetik, lanaren erraztasunagatik galtzen dena, eraginaren aldetik irabazten da.

ARATZ

dezake, daike
dezakegu, daikegu
diote, deutsoe

gaude, gagoz
zaio, jako
zaizkit, jataz

Ehun urte

baino gehiago

diru aurreztapena

laguntzen




BANCO DE BILBAO

HARRI BATEKIN HASI ZEN



GURUTZEGRAMA (43)



Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Joan aditzaren forma. 2: Izenorde galdegilea.—3: Iparraren kontrakoa (artikuluarekin).—4: Kontsonantea. Bata bestearekin ordenarik gabe sakabanatua eta eragina (artikuluarekin). Bokala.—5: Izan aditzaren forma (alderantziz). Kontsonantea. Egun (alderantziz).—6: Alferra (artikuluarekin). Urtsua, ura duena (artikuluarekin).—7: Bokala. Ongi baino hobeki. Kontsonantea.—8: Ilunaren kontrakoa (alderantziz eta artikuluarekin).—9: Izenorde galdegilea.—10: Harritzekoa dena.



Goitik behera. 1: Bakoitzari bat.—2: Emea ez dena (alderantziz). Kontsonantea.—3: Egon aditzaren forma. Bokala.—4: Kontsonantea. Ahoan dugu (artikuluarekin). Kontsonantea.—5: Ikas erazia, mantsotua (alderantziz). Edadea (artikuluarekin).—6: Holako bi dituzte txoriek. Nahia (alderantziz).—7: Ereiteko egokia den lurra (alderantziz). Gorrotoa.—8: Bokala. Bistan dagoena (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—9: Beldur handia (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—10: Lekeitio ondoko itsas hegiko herrixka (alderantziz). Bokala.—11: Gora joan.



Goitik behera. 1: Bana.—2: Ar. M.—3: Nago. I.—4: B. Herra.—8: A. Ageria. R.—9: Izua. R.—10: Ea. I.—11: Igan. Hagina. R.—5: Hezi. Adina.—6: Hegal. Gogo.—7: Soro. Zer.—3: Hegoa.—4: B. Nahasia. I.—5: Gara. L. Gaur.—6: Nagia. Hezea.—7: A. Ondoeği. N.—8: Argia.—9: Nor.—10: Miragarri.

Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Bihoa.—2: AZALPENA.

MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI Muelle de Uribitarte, 15

BILBO - 1

